

EMAKUMEONTZAKO AHOALKULARITZA JURIDIKOA

Udal zerbitzu berri honek emakumeok gai anitzekin lotutako gatazkei buruzko aholkularitza juridiko espezializatu bat izateko eskubidea bermatu nahi du.

Aholkularitza horrek aukera emango digu epairik gabeko espazio seguruan entzunak

izateko, dauzkagun eskubideak eta gatazkei aurre egiteko tresnak ezagutzeko, erabakiak hartzeko segurtasuna eta motibazioa handitzeko eta baliabideak antzemateko, autoestimua handitzeko, eraso matxisten kasuak detektatzeko edo/eta bestelako zerbitzu publikoetara bideratuak izateko.

NORENTZAT DEN

Astigarragako edozein adinetako neska, nerabe eta emakumeontzat.

KONTSULTA DAITEZKEEN GAIAK



Familia

Banaketak, dibortzioak, mantenu pentsioak, bisita erregimenak...



Indarkeria matxista

Indarkeria egoerak detektatzea, eskubideak ezagutzea, eraso ei buruzko prozesu judizialak eta horiek izan ditzaketen ondorio eta eraginak,...



Lana

Etxeko langile zein gainontzeko langile emakumezkoen kaleratzeak, diskriminazioa, eskubideei buruzko informazioa...



Atzerritartasuna

Gaiarekin lotutako kezkak eta gatazkek.



Bestelako kontsultak gai zibil eta penaletan

NOLAKO ZERBITZUA DEN

Konfidentziala, doakoa eta pertsonalizatua (bakoitzaren egoera zehatzak aztertuko dira, dauzkagun eskubideak eta horiek bermatzeko bide egokienak adieraziz). Jasoko dugun arreta aurrez aurrekoa izango da eta aditu baten laguntza eta aholkularitza izango ditugu, beti ere, ikuspuntu feministatik.

AURREZ AURREKO ARRETA

Noiz: Hilabetean behin, astelehenetan, 16:00-19:00.

Non: Emakumeon Etxean.

Beharrezkoa da alde z aurretiko hitzordua.

Eskatu hitzordua Emakumeon Etxean:

@ emakumeonetxea.astigarraga@gmail.com

☎ 648 41 71 57

Hitzordu bakoitzak gehienez ere ordubeteko iraupena izango du.

astigarraga.eus/emakumeontzako-aholkularitza-juridikoa

